

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANTAUURIKO URKIDETZA UR PARTZUERGOA

Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoaren edateko uraren garraioaren, horniduraren, saneamenduaren eta altako arazketaren zerbitzuak erabiltzaileei emateagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen zerga ordenantza aldatzea. Behin betiko onespena

Amaitu da epea jendaurrean jarrita edukitzeko Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoak 2019ko abenduaren 17an egindako batzar orokorrean hartutako erabakia, edateko uraren garraioaren, horniduraren, saneamenduaren eta altako arazketaren zerbitzuak erabiltzaileei emateagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen zerga ordenantzari hasierako onespena ematekoa, eta nola eta haren aurka ez den erreklamaziorik aurkeztu, behin betiko onetsita geratzen da, horrelaxe xedatzen baitute Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16.3 artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49. c) artikuluan (azken hori, uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 50. artikuluekin lotuta).

Goian aipatutako 41/1989 Foru Arauaren 16.4 artikuluan eta 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoa betez, behin betiko erabakia osorik ematen da argitara, eta 2020ko apirilaren 1etik aurrera aplikatuko da.

Partzuergoaren tasak arautzen dituen zerga ordenantza aldatzeko behin betiko erabaki honen aurka, interesdunek administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango dute, jurisdikzio horretako salan, bi hilabeteko epean, erabaki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita.

ACR13/19AG. Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoaren batzar orokorraren 2019ko abenduaren 17ko Erabakia, zeinaren bidez onesten baita Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoaren edateko uraren garraioaren, horniduraren, saneamenduaren eta altako arazketaren zerbitzuak erabiltzaileei emateagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen zerga ordenantza eguneratzea, kontsumoko prezioen indizean oinarrituta.

Urkidetzak, bere izaera juridikoari dagokion moduan eta Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan oinarrituta, goi sareko hornidura instalazioen ustiapena finantzatzeko zerga ordenantza ezarrita dauka 2002ko martxotik.

Behe sareak kudeatu, mantendu, ustiatu eta berritzeko eta tarifen ordainketa eta ezarpena kudeatzeko mandatuatarako hitzarmenek, bigarren mailako sareetan zerbitzuak emateko onartutako printzipioen arabera, hornidura, saneamendua eta horien tasak arautzen dituzten ordenantzak finkatzera behartzen dute Kantauriko Urkidetza. Aipatutako hitzarmenak hurrengo hamar urteetarako berresten ari direnez, Urkidetzak bere eginbeharrak bete behar ditu, eta horretarako, lehenengo eta behin, aipatutako zerbitzuen zerga ordenantza egin behar du.

Kontuan hartu da Toki Ogasunei buruzko Legearen 25. artikulua aldatzen duen 2013ko urtarilaren 1eko 16/2012 Legearen 14.1 artikulua, adierazten baitu ez dela beharrezkoa izango txosten tekniko-ekonomikoa aurkeztea, baldin eta errebalorizazio edo eguneratze orokorrekin eragindako erabakiak hartzen badira, ez eta tasen zenbatekoa murrizten bada ere.

Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumoko Prezioen Indize Orokorraren aldakuntza, 2018ko irailetik 2019ko irailera, ehuneko 0,5 da.

Kontuan izanik Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoa, harekin bat datorren araudian ezarritakoa eta partzuergoaren estatutuetan gobernu organoen eskuduntzei buruz ezarrita dagoena.

Lehendakaritzaren proposamena ikusita, Partzuergoaren Gobernu Batzordeak eman baitu irizpena, bertaratutako guztiak bat etorrita, legezko botoaren 88,75etik 88,75a osatzen dutela, batzar orokorrak hau erabaki du:

ERABAKIA

1. Hasierako onespina ematea Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoaren edateko uraren garaioaren, horniduraren, saneamenduaren eta altako arazketaren zerbitzuak erabiltzaileei emateagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen zerga ordenantzaren 1. eranskina aldatzeari. Horren testua eranskinean dago.

2. Hura jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea hogeita hamar egunez, ALHAOn argitaratu eta biharamunetik aurrera, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izan daitezen.

3. Batzar Orokorrak epean aurkezten diren erreklamazio eta iradokizun guztiak ebatziko ditu eta behin betiko onspena emango du. Erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behinekoa izandako erabakia behin betikotzat joko da.

4. Erabaki honek baliogabetu egiten ditu bere garapenaren edota aplikazioaren aurka egon litezkeen aurreko guztiak.

Izoria, 2019ko abenduaren 17a

Lehendakaria

JULEN IBARROLA GOBANTES

I. ERANSKINA. KANTAURIKO URKIDETZA UR PARTZUERGOAREN EDATEKO URAREN GARRAIOAREN, HORNIDURAREN, SANEAMENDUAREN ETA ALTAKO ARAZKETAREN ZERBITZUAK ERABILTZAILEEI EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK

GARRAIOA

	TASA
1. tarifa: Urkidetzako erabiltzaileak (€/m ³)	0,391
2. tarifa: Urkidetzakoak ez diren erabiltzaileak (€/m ³)	0,599
Bigarren tarifarako, adierazitako zenbatekoa sorraraziko du metro kubiko bakoitzak, eta urteko gutxieneko kontsumoa biztanleko eta eguneko 220 litro izango da (udal erroldaren arabera biztanle kopurua), tarifa egokiaren arabera kalkulatuta.	

BANAKETA

Kontagailuaren diametroaren arabera kuota finkoa (€)

Mota guztietako erabilerak

Diametroa	Tasa
13 mm	5,819
20 mm	9,889
25 mm	13,387
30 mm	19,206
40 mm	36,371
50 mm	55,285
65 mm	72,742
80 mm	91,646
100 mm	126,560

Kontsumoaren arabera kuota aldakorra (€/m³)

Etxeko erabilera

Tartea	Tasa
20 m ³ edo gutxiago	0,251
21 m ³ - 50 m ³	0,503
51 m ³ -tik aurrera	1,809

Abeltzaintzako erabilera

Tasa
0,925

Titulartasun publikoko kirol instalazioak

Tasa
0,503

Beste erabilera batzuk

Tartea	Tasa
30 m ³ edo gutxiago	0,704
31 m ³ - 100 m ³	0,925
101 m ³ - 240 m ³	1,578
241 m ³ -tik aurrera	2,171

SANEAMENDUA

Kontagailuaren diametroaren araberako kuota finkoa (€)

Mota guztietako erabilerak

Diametroa	Tasa
13 mm	7,035
20 mm	11,960
25 mm	16,181
30 mm	23,216
40 mm	43,969
50 mm	66,833
65 mm	87,938
80 mm	110,801
100 mm	153,011

Kontsumoaren araberako kuota aldakorra (€/m³)

Mota guztietako erabilerak

Tasa
0,513

ALTAKO ARAZKETA

Bolumenaren araberako kuota aldakorra (€/m³)

	TASA
1. tarifa: Urkidetzako erabiltzaileak (€/m ³)	1,196
2. tarifa: Urkidetzakoak ez diren erabiltzaileak (€/m ³)	1,829
Bigarren tarifarako, adierazitako zenbatekoa sorraraziko du metro kubiko bakoitzak, eta urteko gutxieneko kontsumoa biztanleko eta eguneko 220 litro izango da (udal erroldaren araberako biztanle kopurua), tarifa egokiaren arabera kalkulatuta.	

EDATEKO UREZ HORNITZEKO ZERBITZUAN ALTA EMATEKO KUOTA

Kontagailuaren diametroaren araberako kuota finkoa (€)

Mota guztietako erabilerak

Diametroa	Tasa
13 - 15 mm	103,987
20 mm	123,173
25 mm	203,683
30 mm	274,667
40 mm	389,659
50 mm	419,718
65 mm	459,788
80 mm	484,209
100 mm	567,242

EDATEKO UREZ HORNITZEKO ZERBITZUAN BAJA EMATEKO KUOTA

Kuota finkoa. (eurotan, kontagailuaren kalibrea edozein izanda ere). Mota guztietako erabilerak

<u>Tasa</u>
46,029